

**GRADU IKASKETA OFIZIALETAN SARTZEKO PROBA ANTOLATZEN DUEN  
BATZORDEA  
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA 2009-2010**

Azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren 16.3.g) artikulua zehazten du unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko hautaprobea antolatzen duen batzordeak ariketak ebaluatzeko irizpide orokorrak ezarriko dituela.

Errege dekretu berak, 16.3.d) artikuluan, agintzen du aipatu batzorde horrek azterketa proposamenak prestatzeko irizpideak definitu ditzan.

Horregatik, batzorde antolatzaileak bi irizpideak ezarri ditu ondoko dokumentazioan, kontuan hartuz aplikatu beharreko legeria honako hau dela:

*1892/2008 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituena (azaroaren 24ko B.O.E.)*

*Unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren akats-zuzenketa (martxoaren 28ko B.O.E.)*

*EDU/1434/2009 Agindua, maiatzaren 29koa, Unibertsitateko gradu ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuaren eranskinak eguneratzen dituena (ekainaren 4ko B.O.E.)*

*49/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Nafarroako Foru Erkidegoko batxilergo ikasketen egitura eta curriculumak ezartzen dituena (ekainaren 6ko N.A.O.)*

*Hezkuntza kontseilariaren 164/2009 Foru Agindua, urriaren 9koa, Nafarroako Foru Erkidegoan graduiko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko probaren zenbait alderdi garatzen dituena (urriaren 28ko N.A.O.)*

Azaldutako irizpideak ofizialki luzatu direla ulertuko da, Batzorde honek aldaketa dagoela jakinarazten ez duen bitartean.

*María Jesús Barber Cárcamo andreak, proba antolatzen duen batzordearen idazkaria den aldetik, ziurtatzen du batzorde honek 2009ko abenduaren 21eko bileran onetsi zituela eranstean diren agiriak.*

*Horrela ager dadin, dagozkion ondorioetarako,*

O.E.  
Batzorde antolatzaileko  
burua

Idazkaria

## **I. ARIKETAK EBALUATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK**

### ***Sarrera***

Fase orokorreko ariketen xedea da heldutasuna eta funtsezko trebetziak balioestea, ondoko hauei dagokienez:

- Mezuak ulertzea
- Hizkuntzaren erabilera, ideiak analizatu, laburbildu eta adierazteko
- Atzerriko hizkuntza baten ulermen orokorra, kasua bada
- Modalitate irakasgai baten ezagupen orokorrak

Fase espezifikoko ariketen xedea da ezagupenak eta arrazoitzeko gaitasunak ebaluatzea, egin behar diren ikasketekin lotutako diziplina anitzeko arloetan, eta fase orokorrean lortutako kalifikazioa hobetzea.

Irizpide orokorrek, beraz, informazioa eman behar dute ikasleek proban erakutsitako prestatze mailari, ezagupenen aplikazio egoki, autonomo eta kritikoari, heldutasun akademikoari eta gaitasunei buruz, baina haien garrantzia ezberdina izan daiteke irakasgai bakoitzean.

Horretarako, Batzorde Kudeatzaileak ondoko proposamen hau egiten du:  
**ARIKETAK EBALUATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK.**

- 1) Proposamen bakoitzean eskatzen diren ezagupenak menderatzea.
- 2) Lortutako ezagupenak aplikatzen jakitea, egokitasuna, autonomia eta, hala behar denean, izpiritu kritikoa erabiliz.
- 3) Proposatutako gai edo testuak modu arrazoitu, gogoetatsu eta zuzenean ulertu, interpretatu eta ebaztea.
- 4) Idatzizko azalpena egitea, jariotasuna eta zuzentasuna erakutsiz:
  - Definizio labur eta argiak, era irakurgarrian adieraziak eta sintaxi eta ortografia zuzenak erabiliz.
  - Hiztegi orokor eta espezifikoen erabilera zehatz eta zuzena.
  - Ideia eta argudioen kateamendu koherentea.

**EBALUATZEKO HIRUGARREN IRIZPIDE OROKORRA**  
**APLIKATZEKO GIDA: "PROPOSATUTAKO GAI EDO TESTUAK MODU**  
**ARRAZOITU, GOGOETATSU ETA ZUZENEAN ULERTU,**  
**INTERPRETATU ETA EBAZTEA"**

Zaila denez irizpide orokor honen aplikazioak aurkitzea irakasgai guztietarako, ondoko adibide hauek bildu dira:

- Hipotesiak azaldu eta kontrajartzea modu zorrotzean
- Proposatutako arazoak, datuak, testuak, egoerak eta bestelakoak modu egokian aztertu, ulertu eta azaltzea
- Arrazoibide zuzena
- Zorroztasuna interpretazioetan
- Sintesisirako ahalmena
- Prozedurak justifikatzea
- Kasu batzuetan, marrazki, eskema edo diagrama zehatzak egitea.
- Erantzun zuzen eta egokia ematea, ondoko hauek erabiliz:
  - Argudioak ematea, bidezkoa bada
  - Koherentzia azalpenean eta emaitzetan, bai haietariko bakoitzean, bai jarraitutako prozeduran ere.
- Gogoeta egokia eta sakona lortutako emaitzei buruz

*Oharra: Agiri honek barnean erabiltzeko bakarrik balio du, eta gida hutsa izateko. Ez da protokolotzat hartu behar.*

## **II. AZTERKETA PROPOSAMENAK PRESTATZEKO IRIZPIDEEN DEFINIZIOA**

**III. eranskina: Ariketen oinarrizko egitura**, agiri gakoa da zehazteko zein izango diren azterketa proposamenak prestatzeko printzipioak eta irizpideak, horiek garatzen diren bitartean.